

Txokotik Zabalera

UDABARRO'TAR KEPA

Emen gatoz berriro ZERUKO ARGIA'ren irakurleekin gure txangoa egitera. Opor-aldia artu baitegu ta orain lengo lanera biurtu gura. Itzuleran, berri pozgarri batek ulaitu gaitu: Atano X'ak, Bergara'k eta Tapia II'ak zuten auzia, konpandua arkitu degu, Pelota'ko Alkartasunak eskeini dien irtenbidea-rekin, Irurak berriro dira pelototokieta ta jokaldietara. Kirolak eta pelotalezalek ba-dute xaltxa berri-ro.

Sorua. Elduaie'ngo esku-pelota-riak, aizea bere alde du Bere urteak gorabera. Arriuren anaiak bezela, Barberito ta beste batzuek bezela, Soruak ere, au erakusten du: espala izan duanak, kontu aritzen ba-dio egurrari, aurrengo leku-an irauten duala.

Gain-gaiean igari dabilena, Garzia Arino I'a da, Bere anai Anjel'ekin, garaipen bikoinak iritsi ditu. Txapeldun eta Txapeldun urrengo izandako onek, aldi ona du. Ogeta bera menderatu estu, bal Arabar pelotari pururakatu, gogor ausi bait-dute bein da berriz, Pelota-kontuak onelaxe oi dira: egunero ez du eguzkiak taoko bat argitzen.

Zaletuen txapelketak probintzi batzuetan eta erri batzuen inguruan asi dira. Gazte asko agertu dira legezko jokaldietara. Sail ontan, legepean eta irrikuz, ondoren ederrak irixi dira. Pelota jokoak irakim egin bear du bere sasotan eta betiko legetan eta adidietan. Onela, ematen dute gazteak beretik dezaketean guzia ta gure joko jatorrak bere iraupen eta etorkizun betea.

Urrengo pelota txapelketan Ogeta jokaten ikusiko oie degu? Orta sasoezurretik egiten degun galdera. Ba-du mutillak gogoa, ba-du ametsa. Orain tru urte min artuta gero, jai luzea izan du. Orrek kendu zion "ostro beleta". Txapelketa asteko sei ilabeteko tarrea degu. Sasoi ona dala uste degu, kontu au platerera ateratzeko. Aurrez neurriak artzea, ezta gatzki etorriko.



Lionel TERRAY

Adiskide eroriaren oroiz

Eusko Jolasen "Olinpiada"?

Danon ezaguna da gure artean kirolerarako zaletasuna bizi-bizia dala, ta aurreko gizaedetatik gaurdinako mota askotan arizian ditala cusko gizonak euren indar, kemen ta, batzuetan maltzuriasuna ere, ageraratzen. Bai munduinako jolasetan, bai gure mendietan arkeko edadura laburra basterik ez dutenetan, zaletasun ori ta sarritan gui-maillatasuna ere azaldu oi da.

Aurreko egiu batcan, kirol zale pururakotai dan gure adiskide batekin mintzatzan ari ginala, azaldu zigun onek bere gogoa gal ontaz, alegia, ez al litzakeen egokia izango cusko "Olinpia...da" bat antolatzea, aspaldiaren gure artean zaitu, erabilili ta orain cuskal kutsu berezi bat duten jolasen artean.

Adibidez bezela, ta bakar batzuek aipatzeko basterik ez, orduan-de, pilotas, arrijasotzea, aizkora, segalaritza, pulankaritza, toka, e.a.; ta orrezaz ganera, ta naiz beste lekuetan ezagunak izanlik, cuskal jakerza beregan artu duten; Arraularitza, laisterkaritza, bolatx, ea.

Zoritzarrez, emen ere, diru kontua izango litzake, korapillo-rik gogorrena. Bera askatzeko, bazkuan indaritsu batzuen habesa edo bearko litzake. Dana dala, barrera-txartelak saltzek ere asko lagunduko lioke, ta naiz Bailona, Donosti, Bilbo edo beste edozein cuskal uri oterako aukeratu, ikuste aunitz izango litzakea deritzkogu.

Gure irakurleeri oldoz-arazten ba diogu irakurgai onekin, lortu degu gure eburua, au da, gogotsu au azaltzean, elkar-itxete, tak esna arazi ta kirol gogoia astintzea.

Eсандako txapelketa au onuragarri izango litzakela erabakitzen ba da, izango al da norbait aurrera eraman dezakena...

APAL-AZPI

FUNCOR, S.C.I.

Benetako, baseritarrak bear dituzten MAKINAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizun'k onenak, emengo nekazarientzat

ADI TA OROI EZAZU
FUNCOR

ELOBRIO

AZKAR BEZIN ONDO
Vitecaya 114

Lionel Terray adiskidea il dala, siniskaitza zait. Oraindik gazte ta giartsua. Ba zirudian Apolo-ren idurizko atleta ura, ipui-kondaira-ko Sigfrido bezela, arriskuetaan ere galdtu ezinezkoa zala. Baina, beste leku izo ezin ziran zenbait mendi artu ta erpiten menderatzaileak erori zailgu. Munduko lege zakarrak bere zerga eskatu du, mitoak egi itzurarik artu ez dadin edo.

Orain egun batzuek joan omen zian Martinelli bere adiskidearekin Vercors mendietara. Megève-tik urbil, estrenamentuzko eskalada bat egitera eta irugarren eguneko argitzen ez ziralarik, beste zenbait mendi-didari atera omen ziran ChamoniX-tik beren bila, ta Gerblor mendietan labarpean arkitu zituzten beren gorpuzak, sozkaz alkarrak lotunk, ililik.

Alpinismoaren kondairan nekez arkitu geneza beste mendizale bat orrenbeste mendi aundi ta arriskotsura igoko zaituk. Berrogerituru urte zituau, Lionel-ek, Martinelli oraindik gaztea zan, Joan zaitziki gure mundura eta tiorik sekula ez du jakingo zelan amildu ziran ere.

Lionel aundia, Lionel gizarajoa, Martinelli gutxi ezaguna aintzuteke, zaudete eternidadeko paketan eta mendizale asariden biotz eta oroi-millean.

Bi urte dira azkenengo aldiz ChamoniX-en izan nintzala eta egun oso bat alkarrerkin pesatu genuen. Bere etxera eraman nituduan Savoie-ko cran egindako chalet polit bat. Gela nagusiaren tokirik berezienean bi erreturatu zituan: bata, Lachenal bere adiskide mitaarena, urte gutxi dirala Vallée-Blanche-n eskiatzen zijoala; bestararen eregi batera erorita illa; eta bestea, bere izabarekin orotizen ez naizena, Aguiille Noire de Peuterey, aizorratzen, berearekin zijoala illa. Oihazez nintzo zitzaidan bere adiskide go-onagarri nintzen bizitzan egun zituzten eskaladatik onenak eta alkartasunean igarotako une alai batzuetzat. Galierakoa, itzik gabe ufer-tzen genuana alkarr, itioiz orrelako

arriskuetaan ibiligerarako esan gabe igaritzen degulako. Arriskuak eskatzen dituan larritasunak ere bere erakusleak ditu ta badaki-gu zenbat estimatzen diran sokan sakarrak iturrik joaten diran lagunak.

Arriskuak berakin duan misteriozko zoriontasunean, batek ez bai daki urrengo amildu daiteke-na norpera ez ote dan izango. Joki irristakor onek dituan ordainak onglezagutzen bai dituan Ori gailiera gu ez gerala izan bere mail-lakook, ez da urrik emen ere. ChamoniX-ko mendi-gidarien artean opsuetuena genduan Terray, Ta, ChamoniX-ko mendi-gidarien itzala mendizale guziok ongi ezagutzen dugu.

Bere gogoan bizi eukan ille batzuek aurriz Euskalerrian, itzal-diak ematera etorri zanean, egun zitalon arerra ona, ta asko estimatzen gituden. Eibar-ko Aizitain-jan zian bildotz-erriari buruz amaika parre egin genuen. Ta, emendik egun zian jira aren eskerrez, zelan kumpitru ere etzekin gizarajok. Emengo askorentzako gorantziaz eman zikidid, batez ere Otegi adiskidearentzat. Ta, beerriz etortzeko gogoz zan: "Bear bada, pare bat urte barru, berriz ere Euskalerrian izango naitzute". Ta, sin zuzen ere, datorren negu onetan etortzeko asmetuan zan. Ba nuan gogoia berarekin utzi nuan zorra ondo kumpiltzeko. Baina, zoritzarrez, ez da biderik.

Grenoble-n jaioa zan. Bere aita medikua zanez, mutikoa zalarik ChamoniXera joan ziran bizitzera. Ta zaleitu zan medi gailurerekin, zaletasun ura ogilide biurtu arte. Emazten ta seme bat utzi ditu.

180 mendi oso gaitzak menderatu zituan Alpes, Andes eta Himalaya-n; berrogetak salbamentutan parte artua zan eta mendian ikusi ditzazkeen trajeri izugarri ta arris-kariak ikusi zituan; bere begie-tzen mendietako egalik gail-tzen menperatzaileak norik pen-tasa usmerzko mendi batean gal-du bear zala?

zoge-en zuzendaritzapecan Himalaya-ra egin zan espedizioan zan Terray. Orduan menperatu zan le-nengo aldiz zortzimila metrolik gorako gailurra, ta Herzog-ek ar-taz egin zuan liburuan dionez, es-keriak Terray-ri ez zan, biurtu espedizio ura trajeri izugarri ba-tean. Terray izan zan eroea, Anna-purna gailua (8.075 metro) artu zuten Herzog bera ta Lachenal erit-otza seguru batetik libratu zituan-na ta agintaritza, Terray-k, bere esku artuaz galierako mendizale guziak mendi barrerara bizak ate-ra zituauna. Orduan egin zan Te-raray mundu guziko mendizalean artean gizonik opsuetuena. Geroz-tik, 1953-a'n alibeste espedizio atzera bota zituan Patagonia-ko Fitz Roy mendietan gailurerra izo zan Guido Magnone-ekin, ez-l, bezkora bazirudien ere. 1955-e'an, Jean Francoren espedizioan zan eta Terray bera izan zan Himala-ya-ko Makalu (8.470 m.) gailu-rerara eldu ziranetako bat. Peru-ko Andes mendietan zenbat gailur erpitietaara eldu zan bere mendi bakar bat geldituz zan, semilla metrotik gorakorik, eginalak-egin igotzerik inhor lortu ez zuana: Cha-craraju (6.100 m.), Peru-ko Cor-dillera Blanca-n Nazio askotakoak ziran ura igo naitrik. Eta, 1963-an, Terray berak antolatutako espedi-zio frantzesa joan zan, betek era-tu ta bere zuzendaritzapecan. Egun batzuek ondoren, neke askorekin eta ondo kostata, artu zuten Cha-craraju-ren gailua.

Egun beltza. Frantziak alpinis-tarik onena galdtu du. Frantziak ez-egirik, munduak berak ere esan genezake. Ta, guk, adiskide on bat.

Liburu eder bat utzi digu bere ibilerak kontatzen duana. Bukne-ran dio, mendietako arrisgoko oz-topak bere bizia etzitzen ez bazu-tzen, zartzaroran artzail egingo zala, orrela, bere aurtzaroko ametsa be-tetzan. Baina, ametsak ames itza-ki, ta nekez biurtzen dira egi. La-bar baten otzopak aundi dio bizia, ta lortu duan paketa beste era bate-koa izan da.

1950-garretan, Maurice Her-

J. SAN MARTIN